

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI
330 - 2024ko ABENDUA

MUSU BATEN TRUKE





Zure izena hurrengoa izan daiteke!

Mailope aldizkaritik zorionak eman nahi dizkiegu aurten-go Errigorako saski ederren irabazleei: **Asier Elizalde Zubillaga** eta **Rafa Etxarri Azpirotz**. Zorionak bikote! Ziur gaude bertako zapore ezin hobekak gozatuko dituzuela. Eta gainerako bazkideei... mila esker gure komunitatea partekatzeagatik! Gogoratu, urtero antolatzen ditugula halako zozketa bereziak bazkideentzat. Beraz, orain da unea! Egin zaitetz bazkide gaur bertan eta izan zozketako hurrengo saritua!

“Mundu txikia”, zure begiradatik, egutegira!

Lagundu 2025eko egutegia sortzen eta partekatu zure begiradak aurkitzen duen “mundu txikia”! Formatu horizontalean hartutako argazkiak bildu nahi ditugu, non naturaren xehetasun txikiak izango diren protagonistak: tximeletak, inurriak, mantangorriak, loreak, etab. Edozein landare, intsektu edo animalia txiki izan daiteke. Jasotzen ditugun argazkien artean batzuk aukeratu eta egutegi polit bat osatuko dugu, zuen denon etxeetan jar dezazuen. Xehetasunak:

- ▶ Argazkiak, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri inguruan ateratakoak izan behar dira.
- ▶ Abenduaren 22ra arteko epea duzue argazkiak bidaltzeko.
- ▶ Argazkiak **mailope@labrit.net** helbidera bidali. Bertan, izen-abizenak eta argazkiaren kokapena gehitu.
- ▶ Aukeratutako argazkiak gure egutegian azalduko dira!

Animatu zaitetz naturaren txoko txikiak eta ederrenak ezagutzera eta besteekin partekatuz!

Eskerrik asko zuen konpromisoagatik!



ZUZEN ETA JATOR

-ELA, -ELA, -ELA...

Askotan, gaztelaren eraginez-edo, gaizki erabiltzen dugu -(e)la menderagailua. Hona hemen adibide batzuk eta zuzeneko forma:

- ▶ **Badut lagun bat Irlandan bizi dela* (> Badut lagun bat Irlandan bizi **dena**).
- ▶ **Parisen izan naiz, dela zoragarria* (> Parisen izan naiz, zoragarria **da**).
- ▶ **Ezagutzen ditut neska batzuk bizi direla baserri batean* (> Ezagutzen ditut neska batzuk baserri batean bizi **direnak** / Baserri batean bizi **diren** neska batzuk ezagutzen ditut).
- ▶ **Kontuz, beroa dagoela!* (> Kontuz, beroa dago **eta!**).

- ▶ **Ez ibili oinutsik, min hartuko duzula!* (> Ez ibili oinutsik, min hartuko duzu **eta!**).
- ▶ **Hain da handia, ez dela atetik sartzen* (> Hain da handia, **non** ez **den** atetik sartzen / **Hain** da handia, ez **baita** atetik sartzen).

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarte.
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandez eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Aritz Gorostiaga, Ainhoa Saralegi, Ainhoa Beraza, Ainara Hernández, Ane Ubegun, Ander Elizalde, Alaitz Olano, Eneritz Urkola, Inma Etxarri, Iñigo Ruiz, Mikel Zabaleta, Plazaola Partzuergo Turistikoa eta Lekunberriko Udala.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103
- mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

02

ZUZEN ETA JATOR

04


KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
ARRIZURI, Etxarritik Aldatzera

08

ELKARRIZKETA
Laura Saigos (Betelu)



12

BATZARRE

14

ERREPORTAJEA
"Lekunberri duela ehun urteko zenbakitan". Asier Azpilikueta



18

KULTURA

22

ERREPORTAJETXOA
"Zintzarri hotsa isildu ez dadin".
Josetxo Goldarazena, Angela Goikoetxea, Olatz Altuna, Ander Mikeo, Aiala Razkin, Eider Martirena eta Ibai Martirena ganaduzaleak




25

KIROLA

26

ERA.EUS
Baliabide anitzak
plataforma bakarrean



28

PLAZATIK PLAZARA
"Plazaolak 30 urte beteko ditu abenduan"
Arkaitz Goikoetxea, Plazaola Turismo Partzuergoko lehendakaria eta Lekunberriko alkatea



31

AGENDA



Uxue Azpiroz Arrizurieta
Abenduak 26an, 3 urte.
Zorionak, gure etxeko
printzesa txikiari. Egun
polit bat pasako dugu
zure alboan ospatzen!
Musu potolo bat etxekoan
partez!



Mikel Astiz Buldain
Abenduaren 16an, 13 urte.
Igor Astiz Buldain
Abenduaren 31n, 8 urte.
Zorionak maitiak! Oso ongi
pasa zuen egunetan, eta
jarraitu orain arte bezala
gure bizitza alaitzen! Mila
musu familia guztiaren
partez!




Alaitz Estanga Ansorena
Abenduaren 27an, 5 urte.
Zorionak polita, asko
maite zaitugu! Ongi pasa
zure egunean! Musu
potolo bat



Peio Goikoetxea Ilarregui
Abenduaren 25ean, urte bat.
Zorionak pottoko zure lehen
urtean. Segi irribarre horrekin,
orain arte bezala. Musu bat
etxeko guztien partez.



Manex Mitxeltorena Eskamendi
Abenduaren 13an, 8 urte.
Zorionak, Manex! Ongi pasa
zure eguna. Gozatu etxekoekin
eta ingurukoekin. Musu bat
etxekoan partez.



Hegoa Jimenez Lizarraga
Zorionak Hegoatxo! 4 urte
bete dituzu dagoeneko!
Ongi pasa eta segi beti
bezain alai. Asko maite
zaitugu!



4

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren
20a baino lehen.



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



948 85 32 79

SAN MIGUEL

Taberna-Jatetxea

Arribe

948 51 31 34



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

W/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin
eta bertan eskuz egindako madalenak,
erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



ADAR HANDI BAT ERORI DA BEIGORRI PARKEAN

Azaroaren 24an, Lekunberriko Beigorri parkean, zuhaitz baten adar handi bat erori zen, 70 km/h-ko haize-boladen ondorioz. Zorionez, ez zen inor zauritu, eta dagoeneko, bidexka normaltasunez erabil daiteke. Hala ere, zuhaitz altuak dauden lekuetan arreta handiz ibiltzea gomendatzen da haize handiko egunetan, adar erorketak arriskutsuak direlako. Onuragarria da horrelako eguraldia iragarrita dauden egunetan, horrelako eremuak saihestea. Gainera, eguraldi-alerak jarraitzea mesedegarria izan daiteke istripuak ekiditzeko.



HOBKUNTZAK ARAIZKO UDALETXEAN

Araizko udaletxean, berrikuntza lanak egin dituzte. Azken urtean, kanpoko itxura aztertu eta berrikuntza planarekin hastea erabaki zen. Dirudiezin, azken hilabetean, paretetan eta balkoietan zeuden pitzadura handiak estali eta konpondu dituzte. Berrikuntza horiekin amaitu ondoren, beharrezko atalak margotu eta obrak amaitu ziren. Langileek, garabi bat erabili zuten eta aste batzuk behar izan dituzte eraikinaren itxura hobetzeko. Orain, udaletxea berriagoa dela dirudi. Bertako herritarrak adierazi dutenez, beharrezko berrikuntza zen eta orain hobekuntza hori nabarmentzen da.



ITURBURUKO PISUEN BERRIKUNTZA HASI DA

Hamarkada bateko kudeaketan, auzokideen kexen eta utzikeria egoera luze baten ondoren, Lekunberriko Iturriburuko 36 etxebizitzetarako eraikinaren birgaitzeko prozesua hasi da. Udalak Banku Berregituraketatik datozen Aktiboak Kudeatzeko Sozietateari (Sareb) obrak egiteko lizentzia eman dio erreformen lehen fasearekin hasteko, etxebizitzetan barne egokitzapenean zentratuta, 911.351,71 euroko inbertsioarekin. Proiektu osoak bigarren fase bat aurreikusten du, fatxaden eta kanpoaldean zaharberritzeari ekingo diona, eta, horrela, amaiera emango zaio eraikin hutsari, jatorrizko sustatzailerak 2014an porrot egin zuenetik.

► Alaitz Olano (Betelu)



Valentzian egon nintzen aurreko egunean lagunak emandako goxotasunean begibistako kaos errealtatean nondik hasiko garen nion galdetzean.

Hautsitako pareta dute magalean, berria eraikitzeko behar ta ezinean bada zeinetan sinistu konturatzean herritarrari esker lokatza kentzean.


Gerra ta katastrofe daude gizartean baloratu dezagun daukagun zortea utz ditzagun txorradak oso urrunean ta zentratu gaitezen elkartasunean.

Doinua: Balearen bertsoa. **Hurrengoa:** Beñat Goikoetxea (Atallu)


Etorkizun zirkularra
eraikitzen dugu
Construimos
un futuro circular



 residuos de navarra
nafarroako hondakinak




HEMENGOA, ZURETZAKO



Kontsumitu eta saldu km 0
Nafarroako elikagaiak, Nafarroan

www.localtokikoa.es



Hurrengoa:

Maialen Moreno (Aldatz)



**Ainhoa Saralegi
(Aldatz)**

maite ditut maite gure bazterrak

ARRIZURI, Etxarritik Aldatzera

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 5km
Desnibela: 200 m
Zailtasuna: erraza

Zergatik aukeratu dut?

Txikitatik ibilitako bideak dira eta ederrak iruditzen zaizkit zeharkatzen dituen baso eta bertatik dauden bistak. Herritik gertu eta egiteko erraza den ibilbidea da. Gogo eta denboraren arabera aukera desberdinak eskaintzen ditu luzatzeko, Aiztondo aldera adibidez.

Bidea:

- 1 Ibilbidea Etxarrin hasten da eta bertatik Mendigibel zutabearen eskuinetara joko dugu GR12a hartuz.
- 2 Arrasto txuri-gorriak jarraituko ditugu Arrizuri kobazulora iritsi arte.
- 3 GR12 bidea hartuko dugu berriro baina Arrizuriko gainera igo ahal izateko, lehenengo bidegurutzean ezkerretara joko dugu, arrastoak alde batera utziz.
- 4 Bertatik aldapa gora jarraituko dugu. Kontuan hartzekoa da zati hau ez dagoela seinalazaturik eta bidea ez dela guztiz argia. Bidean zehar izen bereko geodesikotik igaroko gara. Arrizuriko gaina basoz eta landarediaz inguraturik dago eta ibilbidean zehar Aralar eta Mailoetara bistak izango ditugu.
- 5 Arrizurira igotzeko igarotako bide beretik jaitsiko gara eta GR12 berrartuko dugu. Bideak zuzen jarraitzen du bidegurutzera heldu arte.
- 6 Bidegurutzean Aldatzerako norabidea hartuko dugu herrira jaisteko. Bidea segiz hilerrian agertuko gara eta bertatik herrira iritsi.

7



“Titiburu bat titiburu bat da, eta ez da ezer gertatzen!”

Laura Saigos Beteluko artista gazte eta sortzailea da. Haren obrak ilustrazioaren, argazkigintzaren eta gorputzaren adierazpen artistikoaren inguruan garatzen dira. Heziketa sexualarekin lotutako gaiak eta edertasunaren ohiko estereotipoei aurre egitekoak dira bere lanetan ikus ditzakegun ardatz batzuk. Saigosek Valentziako Bac. Artea, politika eta kultura gunean inauguratu du Musu-truk izeneko erakusketa berria, eta bertan, ikusleek gorputzari eta sexualitateari buruzko hausnarketa aske eta sakona egin dezakete, tabuak alde batera utzita.

Nola piztu zitzaizun artearen inguruko interesa?

Txikitatik, artearekin konektatuta sentitu naiz. Marraztea eta eskulanak egitea gustatzen zitzaidan, eta maiz, lagun batzuekin elkartzen nintzen marrazteko. Bederatzi urte inguru nituela, argazki kamera bat oparitu zidaten eta bertako landareei argazkiak ateratzen hasi nintzen, xehetasun txikiak harrapatu nahian.

Geroago, nire lehen aurrezkiekin argazki kamera hobea erosi nuen, eta handik aurrera teknologia sortzaileen inguruko interesa piztu zitzaidan. Diseinu grafikoa ikasi nuen, eta horrek argazkigintza eta marrazki digitala uztartzeko aukera eman zidan. Valentziara bizitzera joan nintzenean, heziketa sexualarekiko interesa piztu zitzaidan eta nire obrak norabide horretan garatzen hasi nintzen. Sare sozialetan argitaratzen nituen nire lanak, baina Instagramen, adibidez, partekatzen

“Txikitatik sentitu izan naiz artearekin konektatuta”

nituen argazkiak zentsuratu egiten zizkidaten. Horrek gorputzaren biluzia beste era batera lantzea eraman ninduen: marrazki eta collage artistikoak sortzen hasi nintzen.

Mundu artistikoan egiten duzu lan?

Profesionalki ez; proiektu pertsonalak egin ditut, lagunekin, diseinatzailea ere izan naiz departamentu desberdinetan, baina oso zaila da. Valentzia hiri bat izan arren, askoz errazagoa da ildo honetako lana Bartzelonan edo Madrilan bilatzea. Orain diseinu grafikoarekin zerikusia duen master bat egiten hasi naiz; Motion Graphics izena du eta bertan, pelikuletako animazioak, sarreratoak eta bideo mundu horretan lotuta dagoen ilustrazioa lantzen da.



Laura Saigos. Muxutruk erakusketan. Argazkia: Laura Saigos

“Ikasten jarraitzen dut, eta argazkigintzan zentratu naiz gehien”


Zer arte mota sortzen duzu?

Nire lan gehienak gorputzarekin lotuta daude: argazkigintza, ilustrazioak eta batzuetan biak nahastuta uztartzen ditut. Oso zaila da modelo bat bilatzea, eta are gehiago biluzik posatu nahi duen norbait aurkitzea. Horregatik, nire obra gehienak autoerretratuak dira. Ispiluekin eta argi-itzalekin jolastea maite dut, gorputzaren formak deformatzeko eta ohiko edertasun arauetatik ateratzeko.

Adibidez, eguzki-argiak gorputzeko zati batean jartzean, itzalek beste alderdi batzuk ezkututzen dituzte eta gorputzaren errepresentazioa guztiz alda daiteke. Horrela, ikusleek argazki bat ikusi eta zalantzan jartzen dute zer ari diren ikusten: bizkarra, ukondoa, edo besoa izan daiteke. Bide batez, ispiluak erabiltzea oso dibertigarria da; islak askotan beste pertsona bat dirudi.

Gaur egun, teknologia ezinbestekoa da arte munduan...

Bai, nik Photoshop eta tableta digitala erabiltzen ditut ilustrazioak eta edizioak egiteko. Artea tradizionalki lantzea gustatzen zait, akrilikoekin adibidez, baina errealitatean, teknologiarekin azkarrago eta garbiago egin daiteke lan. Gainera, baliabide



Pintura akrilikoekin eskuz marraztutako egurrak. Argazkia: Laura Saigos

IORTIA CLÍNICA DENTAL HORTZ KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69


ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologoa
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainen
Mikroblading bekainetan



Saigosen sortutako arte baliabide desberdinen nahasketa artistikoa. Argazkia: Laura Saigos

guztiak eskuragarri daude plataforma bakarrean. Hala ere, beti azpimarratzen dut oinarriak ikastea garrantzitsua dela, eskuz marraztea eta teknika tradizionalak ulertzea ezinbestekoa da hasieran. Badira digitalean lan egiten duten baina eskuz marrazten ia ez dakiten artistak. Oinarri teknikoa ezin da alde batera utzi, nahiz eta gero teknologiarekin beste aukera artistiko batzuk esploratu.

Arte munduan, nola definituko zenuke zeure burua?

Oraindik oso gaztea sentitzen naiz egoera bat zehazteko. Oso zaila da

“Musu baten truke, nire artea erakusten dut”

neure burua horrela ikustea. Adar asko ukitu ditut; hemendik urte batzuetara, agian beste arlo batean egonen naiz. Artearen mundua hain da zabala, aldakorra eta dinamikoa... Sormenak, azken finean, hau eskaintzen du: alderdi berriak ezagutzea eta probatzea. Oraintxe bertan, ikasten jarraitzen dut eta argazkigintzan zentratu naiz gehien. Puntu honetan, nire argazki proiektuei ikusgaitasuna

eskaini nahi diet, jende desberdinari gorputza nolakoa den adieraziz. Gaur egun ezarrita dagoen tabu hori desagertzea nahi dut, beldur hori kentzea.

Zure karrera artistikoan bide asko zeharkatu dituzu...

Alde batetik, nire ingurukoek asko motibatzen naute, sormena eta bultzada handiko jendea ezagutu dut eta horrek gustatzen zaidan arloan gehiago inplikatzea eta beldur gutxiago izatera motibatu nau. Gustuen arabera, betidanik izan dut argazki eta ilustrazio artistikoetan interesa, baina karrera egiten aritu naizen urteetan diseinu grafikoan zentratu naiz, baina karrera bukatu ostean, nire proiektuak aske bihurtzen ikusi dut argazkigintzan, nire gaitasun artistikoa garatu dezake-dala.

Ikusleek ere parte hartzen dute zure obra artistikoetan?

Jendeak nire argazkietan modeloa izateko gonbidapena jaso du, eta askok onartu dute. Parte hartu nahi dutenentzako argazkiak dohainik egiten ditut. Azken finean, artea egiteko eta heziketa sexuala normalizatzeko truke moduko bat da. Gainera, Musu-truk erakusketan, informazio espazio bat sortu zen, jendeak bertan heziketa sexualari buruzko iturri interesgarriak partekatzeke: web orrialdeak, podcastak, liburuak, etab. Elkarrizketa ireki bat sortzea da helburua, non ikusleek



- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN


680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

hausnartzeko eta ezagutzeko aukera izan dezaketen.

Zer da Musu-truk?

Musu-truk hitza asko gustatu izan zait betidanik. Valentziako jendeak ez du hitza ezagutzen, baina erakusketan azaltzen da. Azkenean, hitzak esaten duen bezala, erakusketa muxu baten truke da, dohainik, eta edonor joan daiteke ikustera. Musu baten truke, nire artea erakusten dut. Bertan, 22 argazki eta 10 ilustrazio inguru daude. Erakusketa hilabete baterako antolatu zen hasieran, baina, Dana ekaitzak sortutako egoeraren ondorioz, luzatu egin da.

Etorkizunerako beste proiekturik antolatu duzu?

Bai; "Amantis" denda erotikoa, produktu sexualak saltzeaz gain, hitzaldiak eta erakusketak antolatzen dituzte, eta Valentziako dendan egingo dut nire hurrengo erakusketa, 2025eko martxotik aurrera, bi hilabetez. Ondoren, Bartzelonan, Madrilen eta Coruñan egonen da. Erakusketa hau nire proiektu profesionalik handiena da momentuz. Valentziako Musu-truk erakusketaren inaugurazioan, urriaren 20an, hitzaldi ireki bat antolatu genuen. Bertan, hainbat gai jorratu genituen: erlazio irekiak eta itxiak, taldeko sexua, eta gorputzarekin lotutako esperientziak partekatu ziren. Oso aberasgarria izan zen ikuspegi desberdinak entzuteko espazio bat sortzea. Nik ez dut heziketa sexualeko hezitzailea izateko formakuntzarik, baina iraku-



Argazkia eta ilustrazioaren nahasketa.
Argazkia: Laura Saigos

"Gizarteak ezarritako edertasun arauak eta estereotipoak gainditzeko garaia da"

rri eta entzundako guztiarekin parte hartzeko aukera izan nuen. Ikusle mordoak bildu eta iritzi desberdinak partekatu genituen; oso interesgarria izan zen.

"Amantis"-en, hau lantzen duten kolektiboekin lan egitea da helburua; gai hau ez da hain ezaguna eta, gehiago lantzea beharrezkoa dela uste dut.

Nola eta non lortu daiteke zure obra artistiko bat?

Argazkiak ateratzeko, artelan bat lortzeko edo pin bat eskuratzeko,

norbaitek erosi nahi badu, Instagrameko kontutik idatzi eta postaz bidaltzen dut. Hau da kontuaren izena: @iirrintzi

Beraz, helburu nagusia...

Nire artearen helburu nagusia gorputzaren inguruko beldur eta lotsa gainditzea da. Gorputz biluziak ez dira zertan sexualak izan. Gizarteak ezarritako edertasun arauak eta estereotipoak gainditzeko garaia da. Titiburu bat titiburu bat da, eta ez da ezer gertatzen! Gorputzak norbanakoaren adierazpena dira, eta naturaltasunez bizi behar dira. Ederetasuna subjektiboa da, eta gorputz bakoitza berezia eta ederra da bere horretan.



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com




German Lasarte HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



SAN MIGUEL gasolindegia
Xabier Garmendia: 629 350 099
Ambe-Atalla



urrutia enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI



▶ BETELUN FANFARRE TALDEA SORTU DA

Aralar Musika Eskolaren laguntzarekin, Betelun fanfarre taldea sortu da. Leire Satrustegi da bertako irakaslea. Ekimen hau, bertako musika eskolako ikasle ohiek eta musikazaleek proposatu zuten ikasturte hasieran. Dagoeneko, fanfarre taldea bederatziki kidez osatzen da eta kanta herrikoiak, kalejirak eta dantzarako doinuak jotzen dituzte. Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean izan ziren lehenengo emanaldiak. Proiektu honek kulturari, musika eta elkarlanari bultzada berria eman dio.




▶ ARAXES IKASTETXEKO IKASLEAK ARALARREN

Urtero bezala aurtengo urrian ere Aralarren izan dira Beteluko ikasleak. DBHko ikasleek irteeraren berri eman dute: "Araxes eskolan, Aralarrera joan aurretik lanketa bat egin genuen HHko ikasleek, Teodosio Goñiren kondaira kontatu genuen eta Albira bidean kokatzen diren herrien lanketa egin genuen". Autobusez, zuzenean Albira joan ziren. Ondoren, Guardetxetik, Pagomarira joan ziren eta Aralarretik barrena Hirumugarrietako gailurrera igo, Unako putzura joan, bertan bazkaldu eta Albira jaitsi ziren. Paisaiaz gozatzeaz gain, mendizale asko agurtu eta Burdin Aroko trikuharriak ikusi zituzten. "Naturaz eta inguruaz gozatzeko aukera ederra izan genuen eta datorren urtean berriro igotzea espero dugu", adierazi dute ikasle gazteek.

OLAIA INTZIARTEREN BIDEOKLIPA, ARAITZEN GRABATU DA


Olaia Intziarteren "eman abisua" azken bideoklipa Araitzeko mendietan grabatu da. Natura eta sentimendua indarren azpimarratzen dituen bideoklip sakona da, musika ederra eta melodia indartsua entzuteko aukera eskaintzen duena. Gainera, Ane Zabala araitzarraren zaldiak ageri dira bideoan bertan. -Grabaketa ikusi nahi baduzu, YouTuben dago eskuragai: https://youtu.be/vtA_tgwE10A





ARALARREKO GARDETXE BERRIA AMAITU DUTE

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak azaroaren 27an aurkeztu zuen Aralarko guardetxe berria. 156 metro karratuko eraikin moderno honek, bisitarien kezka argitzeko bulego bat izanen du, gune komuna, komunak, gordetoki bat eta 120.000 litro ur gordetzeko depositu bat. Eraikina Nafarroako Gobernuak finantzatu du, 465.682 euroko inbertsioarekin, eta "Erki Eraikuntza Jasangarriak" eta "Ensambla Egurra" enpresek egin dute. Proiektua Sakana, Larraun, Araithz eta Leitzaldeko Udalek sustatu dute, Aralarreko Batzarretik eta Nafarroako Ingurumen Departamentutik laguntzarekin.



KATIXA GOLDARAZENA ERAKUSKETA

Arruitzekoa den Katixa Goldarazena, "Regalar es derretir" erakusketa kolektiboan parte hartu du, Ada Garrués eta Lorea Alfaro artistekin batera. Erakusketa antolatzeko, Iñigo Villafranca Apestegua komisarioaren laguntza, ezinbestekoa izan da eta 2024ko urriaren 1etik 2025eko urtarrilaren 12ra egongo da ikusgai Iruñeko Zitudadelako Armari Aretoan. Lanak oparien kontzeptua aztertzen du, distantziak murriztu eta loturak handitzen dituen ekintza gisa. Erakusketa, Iruñeko Udalak sustatu du eta arte garaikidearen bildumarekin elkarlanean egin da.

LEKUNBERRIKO ESKOLAKO OBRAK AURRERA DOAZ

Lekunberriko Udalak, Ibarberri Eskola eta Haur Eskolaren eraberritze energetikoa errealitate bilakatzen ari da, 1.746.900 euroko aurrekontuarekin. Energia Dibertsifikatzea eta Aurrezte institutuak (IDEA) diru-laguntza eman zuen eta proiektu honek urteko 65.000 euroko aurrezkiea eta CO2 isurien murrizketa sortuko du. Gainera, ikastetxeko sarrera nagusia eta aparkalekua erabilgarri daude orain, eta fatxada ere amaitzean dago. Obrak aurrera doaz eta soberako paletak aprobetxatzeko, kiroldegia atzean pilatu dira herritarren eskura jartzeko, edonork har dezake nahi duen paleta.



●● Asier Azpilikueta

Lekunberri duela ehun urteko zenbakitan

1924. urtean egin zuten Lekunberriko erroldan 664 pertsonaren datuak bildu zituzten: 345 emakume (%51,96) eta 319 gizon (%48,04) 129 etxebizitzatan banatuak. Horietaz aparte 31 moja bizi ziren klaratarren komentuan. Zentsu hartako datuetan murgiltzeak aukera aparta eskaintzen du garai hartako Lekunberriren erradiografia egiteko.



Lekunberri XX. mendean

1924. urteko errolda agiria. Arg: Inma Etxarri

1924ko martxoan, Primo de Riveraren diktadura bete-betean zela, Espainiak estatutu municipal bat onartu zuen eta horrekin, beste gauza askoren artean, ezarri zuen bere menpeko lurraldeko udalerrri guztien errolda bost urtean behin egin behar zela. Estatutu haren arabera, udalerrri bateko biztanleak lau moduetako batean zerrendatu behar ziren: familiaburua (*cabeza de familia*, jatorrizkoan), bizilaguna (*vecino*), domiziliatua eta pasadizokoa (*transeunte*). Familiaburua etxebizitzata bateko ordezkari legala zen.

Aurrerago, dekretu batek adierazi zuen biztanle bakoitza sailkatzeaz aparte, beste zenbait datu gehiago ere bildu behar zirela, hala nola, izen-abizenak, adina, egoera zibila, jaioterria, lanbidea eta abar. Hala, familiaburu bakoitzari inprimaki bat emanen zioten bere etxebizitzako guztien datuak biltzeko. Baina aztertzen ari garen Lekunberriko kasuan ez zuten horrela egin izanen, soilik pertsona bakar baten idazkera antzematen baita lekunberriarrei dagozkien hamasei orrialdeetan. Lekunberri bizi zen Larraungo Udaleko idazkari **Jose Antonio Arrillaga Oronoz** ibiliko zen etxez etxe datu horiek guztiak biltzen? Baliteke. Eta ez zen lan txikia izanen.

Gogoratzekoa da 1924. urtean Lekunberri Larraungo udalerriarren barnean zegoela oraindik –1995ean bereizi zen–, eta, beraz, zerrendak Larraungo herri guztietako biztanleak hartu zituela. Nik, baina, lekunberriarrei dagozkien hamasei orrialdeetako datuak baino ez ditut aztertu; bategatik, iruditzen zaidalako Lekunberri baduela halako izaera berezitu bat azterketa berezitu merezi duena, eta bestetik **Andres Azpilikueta Goñi** eta **Niceta Garcia El Busto** nire birraitona-birramonen familia lekun-

berriarren artean ageri delako. Lekunberrin bi urte baino ez zera-
matzan **Fidel Manrique Gil** Iruñeko
tratulari gazteak irekitzen du zen-
tsua; eta **Antonio Albiasu Esnaola**
bi urteko haur oraindik eskolatu ga-
beak itxi. Eta bi horien artean beste
693 pertsonaren datuak daude. Ale-
gia, denetara 695 pertsona zeuden
erroldatuta Lekunberrin 1924. ur-
tean. Eta Larraungo gainontzeko he-
rrietan 2.500 inguru izanen ziren. Bai-
na egun, ehun urte geroago, egoera
gutziz ezberdina da: Lekunberrin
1.700 bat pertsona bizi dira eta La-
rraunen, 900 inguru.

1924ko errollda egin zutelarik, 49 le-
kunberriar, erroldatu guztien % 7,05,
ez zeuden une hartan Lekunberriko
beren etxean bizitzen, eta halaxe
zeuden markatuta (*ausente*, jatorriz-
koan). Kontrara, bazeuden pasadi-
zoko 33 pertsona (*transeunte*), errol-
datu guztien % 4,89, Lekunberrin
nolabait behin-behinean bizi zirenak.
Modu batean edo bestean sailkatu-
ta egon arren, sartu ditut azterketan
bi multzo horietako pertsonak. Ai-
tzitik, kanpo gelditu dira klaratarren
komentuko 31 mojak, beren izaera
bereziak –denak emakumeak izatea,
denak helduak izatea, denak alfa-
betatuak izatea, ia denak nafarrak
izatea baina gehienak ez larraun-
darrak...– nahikotxo baldintzatzen
baizituen zenbait emaitza.
Beraz, komentuko datuak alde bate-
ra utzita, 1924ko Lekunberriko errol-
dan 129 etxebizitza daude zerrenda-
tuta eta horietan, batez beste, 5,15
biztanle bizi ziren. Etxebizitarik jen-



1925. urteko Lekunberriko nesken eskola.

**“1924an, Lekunberriko 129
etxebizitzetan, batez beste,
5,15 biztanle bizi ziren”**

detsuena **Jacinto Ayestaran Martija**
eta **Jesusa Garro Ayestaran** hoteleko
jabeena zen. Bertan 14 pertsona bizi
ziren: aipaturiko senar-emazteak, be-
ren bost seme-alabak, sei senide eta
apopilo bat (*huesped*, jatorrizkoan):
Miguel Zavala Goicoechea iruindar
harakina (*cortador*).

Jende kopuru txikieneko etxebizitzak
bizilagun bakarrekoak ziren, nos-
ki. Halako bederatzi daude 1924ko
errolldan: **Pedro Juan Beretervide**
Iroz erretorearena (Luzaidekoa), **Jo-
aquin Blanco Sagaseta de Ilurdoz**
medikuarena (Iruñekoa), **Bonifacia**

Buldain Garralda neskazaharrarena,
Vicente Erro Oyarzun jornalariarena,
Nicasio Garbayo Ayala beste mediku-
kuarena (Iruñekoa ere bai), **Paula Ga-
rro Ormaechea** jostunarena, **Daniel**
Sancho Larío jornalari espainiarra-
rena, **Manuel Jacinto Illaramendi**
Arrillaga nekazariarena (Usurbilgoa),
eta **Pedro Otamendi García** enple-
gatuarena (Iruñekoa).

Miguel Echarri eta Maria Zubeldia
Erroldan agertzen den lehenbiziko
datu pertsonala izen-abizenei dago-
kiena da. Erroldako 664 pertsonak
276 izen ezberdin erabiltzen zituzten:
125 gizonezkoena eta 151 emaku-
mezkoena. Izen bakunak konposa-
tuak baino ohikoagoak dira, azken
horiek izen guztien %15 baino ez
baitira. Hemen zalantza sortzen da:
izan ere, gerta daiteke bataiatzean

ASEGURU AHOLKULARIAK
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarria behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

HOSTAL BETELU
Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

Era askotako ogiak eta gozoak

Etkez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151



Lekunberriko ostua XX. mendean

izen konposatu bat jasotzea, baina gero, erabilera errazenaren ondorioz, erroldara izen bakuna eramatea.

Zentsuan, emakume izenik ohikoena **Maria** da; 28 emakumek dute izen hori, emakume guztien %8,12. Baina beste 45 emakumek ere badute Maria izena haien izen konposatuetan. Beraz, denetara, Lekunberriko emakumeen % 21,16k biratzen zuen burua Maria entzutean. Bigarren izen ohikoena Josefa zen, 19 errepikapekin. Eta gero Juana (14), Micaela (12) eta Manuela (12). Gizonezkoen artean, berriz, **Miguel** da izenik errepikatuena, ziurrenik San Miguel santutegiaren gertutasunagatik; 20 lekunberriarrek zuten izen hori, gizon guztien % 6,27. Haren ondotik heldu dira Manuel (14), Francisco (14), Jose (13) eta Juan (11).

1924an ohikoa zenez, erroldako izen guztiak gaztelaniazkoak dira. Bat izan ezik. Emakumeen artean bada Imanole izeneko bat (gaztelaniaz Manuela litzatekeena), **Imanole Aoz Viscarret** 8 urteko neskatua, hain zuzen ere. Imanole 1916 aldera jaio zen Irunberrin, eta bitxia da izen hori jarri izana, Imanole izena 1910ean agertu baitzen lehenbizikoz Sabin Aranak Bilbon argitaraturiko izendegian. Imanole, 1921ean joan zen Lekunberrira bizitzera, **Manuel Viscarret Roda** bere osabarekin batera. Manuel Lekunberriko botikaria zen. Abizenei dagokienez, erroldako 664 lekunberriarrek 304 deitura ezberdin zituzten. Horietatik 233 argiki euskal abizenak dira, hau da, abizen guztien

CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
 FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
 Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
 📧 construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540
 ☎ 636 827 846

% 76,64. Banaketa hori zertxobait aldatzen da kopuru absolutuei begiratuz gero: lekunberriarren abizenen % 64,46 zen euskalduna. Erroldan bi abizenekin agertzen dira herritar gehien-gehienak eta lehenbizikoa zein bigarrena kontuan hartuta **Etxarri** da deiturarik ohikoena, 47 errepikapenekin. Ondorengo abizen errepikatuenak hauexek dira: Zubeldia (32), Astiz (30), Garbisu (26), Goicoechea (26), Erneta (24), Martiarena (21), Mariñelarena (20), Azpiroz (19) eta Ayestaran (18). Saillkapeneko hamabigarren postuan agertzen zaigu lehen abizen erdalduna: Michaus (17). Bakarrik lehen abizenak hartzen baditugu kontuan, Saldise joaten da bigarren postura, 16 errepikapenekin.

31 moja klaratarren komentuan

1924ko erroldaren arabera, Lekunberriko klaratarren komentuan 31 moja bizi ziren orduan. Kontakizun ofizialak dio komentua 1888an sortu zutela Jose Maria Juanmartiñenak eta Juana Josefa Noguerak, beren iloba Sor Maria Pilar de San Juan de la Cruz-ek halaxe eskatuta. 1924ko errolda begirata, baina, zalantza sortzen da, ea benetan urte hartan jarri ote zen komentua martxan ala urte batzuk geroxeago. Izan ere, moja bakoitzaren adinari komentuan zeramatzan urteak kenduta, ateratzen zaigu zerrendako lehenbiziko hamar mojak 1895-96an sartu zirela komentuan. Beraz, litekeena da komentuko bizitza benetan orduan hasia. Komentuko zerrendan agertzen den



Lekunberriko klaratarren komentuan 1918. urtean . Arg: Aquilino García Deán

“Erroldan, abizen ohikoena Etxarri zen, 47 errepikapenekin”

lehen pertsona abadesa da, **Pilar Marco Vinta** du izena, eta baliteke komentuko sortzaileen iloba hura izatea; Maria Pilar de San Juan de la Cruz ez baita benetako izena, moja izena baizik. Abadesa Urrozkoa zen, nafarra, komentuko moja gehienak bezalaxe. 31 mojetatik 28 nafarrak ziren (horietako bederatzi, Larraungoak), eta beste hirurak, gi-

puzkoarrak. Hain zuzen ere, komentura ailegatzen azkena –komentuan zortzi egun baino ez zeramatzan– Hondarribikoa zen: **Emilia Lapitz Aguinagalde**, 44 urtekoa. ‘Lapitz’ abizena halaxe idatzita agertzen da, TZ-rekin.

Abadesa zen komentuko zaharrena 1924an, 65 urterekin. Eta gazteenak, **Ignacia Aranzabal Insausti** tolosarrak, 25 urte zituen. Urte hartan, mojek batez beste 25 urte zeramatzaten Lekunberri erroldatuta, eta haien batezbestekoa 45 urtekoa zen. Denek bazekiten irakurtzen eta idazten eta denek zuten ofizio bera: kontenplaziozko bizitza.

AMARU BAR
ETXKO PIZZAK,
KOPA BEROZIAK
948504352

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsoñea.com
Utegi (Araitx)

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

Iñigo Garaioa MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitx

DANA ekaitzak sortutako ondorioei aurre egiten

Larraun, Lekunberri, Araithz eta Beteluko herritarrek, elkartasun adibide bikaina eman dute. Bizilagun asko mugitu dira DANA-ren kalteak sufritu dituzten eremuetara, bertan laguntzera. Eta joan ezin zutenek, babesa eta laguntza etxetik bidali dituzte. Erantzuna izugarria izan da, baliabideak, denbora eta indarrak elkartu dira. Une zail honetan, herritar guztien lana, benetan hunkigarria eta aipagarria izan da.



Eskualdeko herritarrak Valentziara

Eskualdeko hamarnaka lagun elkartu dira Valentziara laguntzera joateko. Sastrakak antolatutako ekimean, 17 4x4 ibilgailu prestatuekin eta bi makinekin bertaratu dira kaltetutako herrietara. Bertako kaleetako auto izorratuak eta pilatuak mugitzen egon ziren eta herritar desagertuak bilatzen eta laguntzen aritu ziren. Hiru asteburu jarraian joan dira, etsi gabe. Gainera, ekarpen ekonomikoak jasotzeko diru kontu bat ere zabaldu da, ekimen hau babesteko eta laguntza gehiago eskaintzeko. Herritarren elkartasuna eta antolakuntza benetan eredugarriak izan dira. Hala ere, lan asko egiteko dago, eta horregatik, abenduaren 1etik 6era berriro itzuliko dira laguntzera. Dagoeneko, laguntzeko gastuak ordaintzeko kontuan, ez da diru gehiegi geratzen, beraz, gastu ekonomikoak, haien poltsikoetatik ordaindu beharko dituzte. Zure ekarpen ekonomikoa egin nahi baduzu, hauek dira jakin beharreko datuak:

- ▶ Caja Rural de Navarra.
- ▶ Titularra: Iñigo Garcia Cuellar.
- ▶ Telefono zenbakia: 637781789 (BIZUMA EZI!)
- ▶ Kontzeptua: Izen-abizenak Ayuda 4x4 DANA. (Ez bada kontzeptua zehazki espezifikatzen dirua itzuliko da!)
- ▶ Kontu zenbakia: ES6430080041075162523624



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

2.000 euro bideratuko dira kalteak suspertzeko

DANA hondamendi naturalak, sortutako kalteak izugarriak izan dira, etxeak, kaleak, zubiak eta bizitzak, suntsitu dira. Ondorioz, Lekunberriko Udalak eta Larraungo Udalak elkartasuna eta indarra adierazteko, 2.000 euroko ekarpen ekonomikoa egin dute. Herritarrek ekarpenak egiteko kontu korrante bat ireki zen, bertan bildu zen dirua Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez kudeatuko da, eta DANAK eragindako kalteen konponketarako erabiliko da.



DANAK sortutako hondamendia

Gogorretik, langile klaseari elkartasuna

Valentziako langile klaseari elkartasuna adierazteko, azaroaren 9an material bilketa egin zen Gogorretik, Larraun-Araitx kontseilu sozialistaren laguntzaz. Beteluko udaletxeko atarian eta Lekunberriko Aliproxen izan zen bilketa eta bertan, ur-botilak, erratzak, eskorgak, palak, maskarak, mangerak, garbigariak, babes-betaurrekoak, eskularruak, etab. bildu zituzten.



Aliproxen bildu zen materiala.



Materialez betetako furgoneta.



Kabo-ko bi langileak, bolondres eta suhiltzaileekin. Arg.: Maddi Aranburu



Kabo-ko langileak oluntarioekin

Kabo jatetxetik laguntza

Lekunberrikoa den Maddi Aranburuk, Iruñean dagoen Kabo jatetxean egiten du lan, eta bertatik ere, Valentziara joan ziren. Bost egun igaro zituzten hango hiru herri desberdinetan eta elikagaiak prestatu, banatu eta herritarrek laguntzeko aukera izan zuten.

Zaragozako puzzle lehiaketako txapeldunak

Azaroaren 1ean ospatu zen Puzzle Solidarioen II. Lehiaketa. Zaragozan gauzatu zen eta bertan, Lekunberrin bizi diren Lorea Zulet eta Ainara Hernández herritarrek parte hartu eta lehiaketa irabazi zuten, Altsasuko den Ana Jesus Barricartekin eta Obanoseko den Laura Arangurenekin. "Con mono de puzzles" izeneko taldea osatu zuten lau emakumeek eta denen artean, 1.000 piezako puzzle bat, ordu batean amaitu zuten (01:03:23).



Lorea Zulet, Ainara Hernández, Ana Jesus Barricarte eta Laura Aranguren, puzzlea osatu ondoren. Arg.: Ainara Hernández

Festa giroan, aldaparik ez!

Aurtengo sanmartinak ere joan zaizkigu. Umore ederrean ospatu zituzten festak Aldatzen eta Gaintzan. Asteburu hartako eguraldia ez zen kaxkarra izan, eta bertakoek musikaren erritmoan pozez igaro zituzten herriko egun berezi horiek. Ohiturak zutik dirau, eta egitarau oparoa izan zen bi herrietan. Batek baino gehiagok penaz agurtu zituen eskualdeko azken festak, baina ohartzerako iritsiko zaizkigu hurrengoak ere!

ALDAZKO FESTAK



20

GAINTZAKO FESTAK



Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazi!

Azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna aldarrikatu zuten Larraun, Lekunberri, Araitz eta Beteluko herritarrek. Arratsaldean, elkarretaratzea egin zen Larraungo Udaletxetik Lekunberriko Udaletxeraino, Larraungo Berdintasun mahaiak antolatuta. Beteluko aparkalekuan ere bildu ziren, bertako Erasoen Kontrako Mahaiak deituta. Ondoren, azaroaren 27an, Lekunberriko Batzar Aretoan, zineforuma ("En tierra de hombres" filma), solasaldia eta amaitzeko, askaritzoa antolatu zen.



Lekunberriko elkarretaratzea



Beteluko elkarretaratzea

Ohitura batzuen beharra eta onura

Azaroa tristea suertatu zait. Santu guztien egunean, Perunean hildakoak agurtzeko lan saio hunkigarria egin genuen. Lisak eta USAtik etorritako bere amak ere hartu zuten parte. Amaitzean Gaintzako hilerria joan ginen lore eskaintza egitera eta burura etorri zitzaidan umetan egun honetan bizi genituen tradizioak. Familiari joaten ginen kanposantura bertan geneuzkanean agur egitera.

Aurtengo udazkenean, John -Lisaren aita, Luis -nire aitaren lehengusua- eta Miguel -amaren lehengusua- zendu dira baina egin zaizkien agurrak oso desberdinak izan dira. Johni oso errituala eta landua, Luisi oso sinplea eta Migueli hemengo ohiturez betea. Soilik azken kasuan, elizan.

Joan den udan Sri Lankan egon ginen Lisa eta biok. Bertan erlijioek indar handia dute eta budistak, hinduistak, musulmanak zein kristauak bizi dira. Tenplu asko bisitatu genuen, batzuk bi mila urte zahar, oihanean edo harkaitzen azpian. Bertara sinestun eta pelegin asko hurbiltzen da tradizioak betetzera, hildakoei agur esan eta gogoratzeko ere. Han oraindik tradizioak mantentzen dira beti bezala.

Gure gizartean erlijioak indarra galdu du azken urteotan eta, ondorioz, tradizio batzuk galtzen ari dira. Dena den, errituek badute bere garrantzia, esaterako, dolua lantzeko. Hortaz, bide berriak garatu behar ditugu, tristurari, doluari eta memoriari lekua egiteko eta, aldi berean, gure burua zaintzeko.




Angel Urrutia olerkigilearen omenaldia

Azaroaren 21ean, Angel Urrutia olerkigilearen omenaldia ospatu zen Lekunberriko Udaletxeko aretoan, bere jatorrizko herrian. Ekitaldian, 30 lagun inguru elkar-tu ziren eta idazlearen monografikoa aurkeztu zen. Consuelo Allué, lanaren zuzendariak, olerkigilearen bizitza eta ibilbidea azaldu zituen. Gainera, Isabel Logroño, Marina Aoiz, Juankar Mugertza eta Javier Asiainek hainbat poema irakurri zituzten, Leire Alonsoren biola musikarekin doinu ederrez lagunduta. Ekitaldia Larraun eta Lekunberriko Kultur Sailak eta Lekunberriko Udalak antolatu zuten, olerkigilearen lanak gertuagotik ezagutzeko aukera eskainiz.

Dantza, antzerkia, eta euskal kultura Printzan

Azaroaren 29an egin zen "Enbata" proiektua Printzan. Bertan dantza eta antzerki fisikoaren bidez euskal kulturaren errealitatea eta sormen dimentsioa landu zituzten. Tradiziozko pertsonaien ahotsa eta mugimendua erabiliz, egungo berriak kontatzeaz gain, dantza garaikidea egin zuten.



●● Josetxo Goldarazena, Angela Goikoetxea, Olatz Altuna, Ander Mikeo, Aiala Razkin, Eider Martirena eta Ibai Martirena ganaduzaleak

Zintzarri hotsa isildu ez dadin

IX. Nekazari Eguna egin zen Lekunberrin irailaren 1ean, azkeneko alditik zortzi urtera, eta ganaduzaleak pozik daude feriak izandako harrerarekin. Gazteen eta emakumeen presentzia nabarmendu dute gehienbat, behorretan segida izan den seinale.

Lekunberriko errepideetan ez zebiltzan autoak joan-etorrian irailaren 1eko goizean, behorrak baizik; apoen zanpa-zanpa eta zintzarrien mihi-ri hotsak aditzen ziren bazterretan. Desfilean ailegatu ziren aziendak herrira, bi muturretatik. Ganaduzaleak sokei eusten, eta herritarrak ikusmiraz haiei so. Urteak ziren Lekunberrin Nekazari Eguna egiten ez zela, zortzi urte zehazki, baina IX. ferian bildu zen jendetza ikusirik argi dago urte hauetako etenak ez duela itzali gure ibarrean behorretarako eta, oro har, azientarako dagoen zaletasuna. La-

rraungo eta Lekunberriko udalak, Cerdana Garalur, Plazaola Partzuergoa eta ganaduzaleak elkarlanean aritu dira feria eguna antolatzeko, eta behor zaleak behinik behin pozik daude egunak emandakoarekin. Ehun abelburu inguru bildu ziren ferian; behiak, astoak, ardiak... denetarik animaliak ekarri zituzten abeltzainek Lekunberrira, baina behorra izan zen protagonista nagusia, Auritz arrazako behorra. 2016ko azken feria egun harekin konparatuta, baina, aurtengoak bazuen berezitasun bat: lehiatzeko ez, ganaduzaleek beren

aziendak erakusteko antolatu zuten Nekazari Eguna, esposizio modura. Horrez gain, behorrak saltzeko eta erosteko abagunea ere izan zen, nahiz eta, Josetxo Goldarazena behor zaleak azaldu bezala, horrek tradiziozik ez izan inguru honetan: "Ez da erraza lehendabiziko urtean azienda ekarri eta erostunak etortzea, baina saiakera egin genuen". Eta baita lortu ere.

Esnetarako behiak behera, behor- rak gora

Izan ere, soka luzea duen feria da Lekunberriko Nekazari Eguna. 1988an egin zen lehendabiziko aldiz, eta orduz geroztik abeltzaintza dezente aldatu dela kontatu dute ganaduzaleek. Gaztetan ere ezagutu omen zuen etxean behorra Angela Goikoetxeak, Araitzen bertan, eta Larraunen ere beti egon izan direla gogoratzen du, "behor onak, gainera".

Hala ere, garai haietan esnetarako behiak indar handiagoa zeukan gurrean behorrak baino, eta orduko ferietan ere behiak gailentzen ziren. Hala omen zen ordena barrutiko belar gozoa mozteko: esnetarako behiek aurrena, ardiek ondoren, eta, dena garbi zegoenean, behorrek mozten zuten, behi esnearen produktioa baitzen abeltzaintzaren ardatza. Gaur egun, aldiz, makina bat behorrek moztuko du garai batean behientzako ziren larreak.

Uitziko Eider Martirenak ere txikitatik ikusi ditu behorrak etxean, aitak betidanik izan baititu, baina azaldu du berak ez diela beti erreparatu izan: "Umetan zeozer ibiltzen nintzen behorretan, baina gero ez, eta 17 urtetatik hona lagundu izan diot, baina denbora batean ez. Aitak lehen ere ekartzen zituen behorrak Nekazari Egunera, eta sari batzuk ere irabazi izan ditu". Aurten, gainera, alaba bera aterata zen etxeko behorrekin desfilat-



Josetxo Goldarazena, Angela Goikoetxea, Olatz Altuna, Ander Mikeo, Aiala Razkin, Eider Martirena eta Ibai Martirena ganaduzaleak

zera, orduko hartan ez bezala. Baina ez zen izan behor artean ibili zen emakume bakarra; Arribeko Ander Mikeo eta bere arreba ere Lekunberrin izan ziren etxeko aziendarekin, haiek ere txikitatik ikusi baitituzte behorrak haienean. "Aitak betidanik izan ditu behorrak, eta osabak ere bai". Lekunberrira ez ezik, Urdazubira ere eraman zituzten behorrak mikeotarrek irailen; han bai, lehiatzera, eta baita sariak lortu ere.

Lehen, emakumerik ez

Inor gutxi harrituko da, segur aski, gaur egun emakumeak halako feria batean ikusteaz, baina, ganaduzaleek gogoratu dutenez, orain dela gutxi arte ez zen batere ohikoa izaten, eta 2016ko azken hartan ere gizonezkoak izan ziren plazara atera ziren ia denak. Olatz Altuna azkara-tearra izan zen VIII. ferian behorra hartuta plazara atera ziren emakume gutxietariko bat, eta ongi gogoan dauka egun hura. "Eskerrak aldatu den", nabarmendu du atzera begirakoan.

"Bazen garaia", esan du Berueteko Aiala Razkinek. Gehitu du Altsasuko behor ferian ere atera zirela plazara emakumeak, eta orain arte gizonaren itzalean egindako lana azaldu du: "Gure etxean ere amatxiren izenean daude behorrak, baina jendeak Navarra [gizona] ezagutzen du. Lehen, azienta emaztearen izenean jartzeko ohitura zegoen, eta oraindik ere badago, gizonak etxetik kanpo egiten baitzuen lan, eta emakumeak, berriz, etxean".

Zalantzarik gabe, mugarri bat jarri du aurtengo Nekazari Egunak, eta behor zaleek espero dute heldu diren urteetan ere antolatzea feria gurean. "Beste okerrik ez bada, berriz egingo da!", bota du Ibai Martirenak. Alabaina, argi daukate gazteen bultzada gabe eta aurtengorako izan duten ilusioari eutsi gabe ezinezkoa dela horrelako ekitaldiak aurrera eramatea. Azken finean, hori baita gehien gustatu zaiena, elkarri laguntzeko egon den prestutasuna eta denen artean lortu dutena. Azienta denera baitzen egun hartan, ganaduzale guztiena.



Arg.; Diario de Navarra




Arg.; Aritz Gorostiaga



Behobia-Donostia, lasterketa herrikoa


2024ko 59. Behobia-Donostia lasterketa, azaroaren 10ean ospatu zen Donostian, eta bertan, Araitz, Lekunberri eta Beteluko hainbat kirolarik parte hartu zuten. Lasterketak 20,3 kilometro distantzia du, Behobiatik Donostiara doa, eta bere zailtasunagatik eta ikusleek eskaintzen duten giro alaiagatik, oso ezaguna da. Aurten, 27.000 korrikalari inguruk parte hartu zuten eta %31,25 emakumezkoak izan ziren. Chakib Lachgar (1:02:19) eta Mireia Guarner (1:13:54) korrikalariak izan ziren irabazleak.



BAKARKA			
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA	SAILKAPENA
Kevin Vera Saizar	Lekunberri	01:22:12	1178
Sasha Smith Macadam	Lekunberri	01:32:03	3806
Beatriz Oreja Garralda	Lekunberri	1:38:42	6828
Angel Soroa Onsalo	Lekunberri	1:42:38	9088
Nora Unanua Iraola	Lekunberri	1:59:13	18333
Xana Belastegui Macadam	Lekunberri	02:16:24	22872
Ander Arraztio Saralegi	Betelu	01:37:35	6235
Unai Otermin Satrustegui	Betelu	01:56:14	16794
Asier Elizalde Zubillaga	Betelu	01:56:14	16796
Ane Garmendia Albisu	Gaintza	01:39:01	7005

Euskal Herriko Mendi Erronkan izena emateko epea zabaldu da

EH Mendi Erronka 2025, ekainaren 7an ospatuko da. Leitzan (Nafarroa) hasi eta amaituko da eta 67km-ko ibilbidea izanen da. Izena emateak 2024ko azaroaren 15etik 2025eko ekainaren 4ra arte daude zabalik. Banakako inskripzioak 61€ balio du, martxoaren 31 baino lehen egiten bada, eta 71€ data horren ondoren. Erreleboetako txandak amaitu dira, baina itxaron-zerrendan izena eman daiteke: 75€ martxora arte eta 85€ ondoren. Ez galdu erronka paregabe hau bizitzeko aukera hau!



2024. urteko Euskal Herriko Mendi Erronka irteera. Arg.: Festak.com



Albaitaritza

baserriarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Irurtzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



“Hirumuga Bike Park”-en auzolana igoera bidexka hobetzeko

Aurreko hilabetean, auzolana egin zen Lekunberriko “Hirumuga Bike Park”-en, mendiko bizikleta bidean dagoen igoera bidexka hobetzeko. Igoera kaltetzen hasi zenez, hobetzea izan zen helburua. Lana amaitu ondoren, parte hartzaileek bazkaldu eta igoera probatu zuten, bizikletan buelta bat emanaz. Hurbildu ziren lagunen parte-hartzea funtsezkoa izan zen ekimena aurrera eramateko.



Parkeko hobekuntzen irudia



Irati Ibarbia, kirol teknikaria

Kirol arreta zerbitzu berria Betelun

Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateko teknikaria, Irati Ibarbia, astean behin Betelura joaten hasi da. Zerbitzu honen helburua herri txikietan dagoen kirol eskaintza hobetzea eta Kirol Mankomunitateko baliabideak herritarren eskura eskaintzea da. Aurretik, asteazkenero izanzen da Beteluko Udaletxean, herritarren kezka eta proposamenak entzuteko eta kirolarekin lotutako beharrak bideratzeko.

Xake txapelketa jendez lepo

Eskola jokoan xake txapelketa, Lekunberriko kiroldegian gauzatu zen azaroaren 17an, eta ekitaldiak arrakasta handia izan zuen. 140 lagun inguru bildu ziren bertan. Giro bikaina sortu zen, kirolaren inguruko interesa eta gazteen parte-hartzea sustatu zen.



Xake txapelketako irudi bat.
Arg.: Lekunberri K.E



Xake txapelketako parte-hartzaileak

Botere handi batek ...

Esaldi hasiera potoloa. Jarraipen eza-gunena izakitxo berde, txiki, xahar eta jakintsu batena da. Hark esaten du, erantzukizun handi bat dakarrela. Hitz zentzudunak, erromantikoak. Baina literatura besterik ez, poesia. Zein liluragarri eta bidezko litzatekeen boterea duenak, arduratasunez erabili eta batez ere onura kolektibo sortzea. Baina boterearen zailena amaiera non duen jakitea da, zein da botere maximoa, zein da boteretsuena..

Zer da boterea? Nork asmatu zuen eta zertarako, eta nola lortu gehiago. Beste guztien gaineratik, botere nagusi, dirua. Dirua boterea da, mundu kapitalistan bizi gara. Dirua da denaren ardatz, beraz botere iturri. Baina gauza txikietan ere badago boterea, autoritate txikienak ere boterea dauka. Agintean dago boterea, eta boteretsu egiteko norbait edo zerbait, eragile nagusia beldurra da.

Guk uzten diegu beldurrei boterea izaten. Kontrola hartzen dute eta boterea lortu, gure bizitza guztiz kondizionatzen iritsiz. Asko arrazionalak, baina guk indartsuago izan behar dugu, izakitxo berde eta jakintsu. Beldurra maneiatzen ikasi eta gure buruaren boterea gureganatu. Munduarena joko handi potoloa da, eta garestia. Baina gudan gastatu beharrekoa, gudan daukagu. Ez egin zalantza eta atera, eskatu laguntza ateratzeko behar baduzu, eta eman laguntza besteena azaleratzeko ahal baduzu.

Botere handi bat izateak, botere egarri mugagabea dakarrelako, baina botere txiki batek, norberaren askatasuna ekar dezake.



Baliabide anitzak plataforma bakarrean



26

Gurasoei euskararen transmisioan eta sozializazioan laguntzea da asmoa, tresna hau eskuragarri jarrita.

Nafarroako toki-entitateetako 28 Euskara Zerbitzuek elkarlanean sortutako plataforma bat da **era.eus** webgunea, euskaraz ikasten duten haurren gurasoei laguntza eta baliabideak eskaintzeko eta seme-alaben ikas-prozesua osatzeko helburuak dituena. Haurrek, ikastetxeetan, dagokien adinerako ezagutzak eta gaitasunak jasotzen eta

garatzen dituzte, baina euskarak gizar-tean duen presentzia desorekatua kontuan hartuta, ezagutza eta gaitasun horiek eskolaz kanpo ere indartzea egokia da; esaterako, etxean, kultur jardueretan edo eskolaz kanpoko jardueretan. Gurasoei euskararen transmisioan eta sozializazioan laguntzea da asmoa, tresna hau eskuragarri jarrita.

Astero gai desberdinak jorratzen dituen albiste edo artikulua bat igotzen da plataformara, webgunea daukan hiru atal nagusiak elikatzen dituena: Etxean, Eskolan eta Eskolaz kanpo. Izan ere, ERAk baliabide sorta zabala eskaintzen du, eta baliabide horiek eremu guztietara zabaltzea da helburua. Hala, eduki hauek modu desberdinetan antolatzen dira sekzio bakoitzaren barruan: euskara dakiten edo ez dakiten gurasoentzako baliabideak, haurren adinaren arabera sailkatutako edukiak edo eskolaz

kanpoko jardueraren arabekoak. Mailopen sortu dugun atal berri honetan baliabide horien guztien berri emanen dizuegu, eskaintza hori zuen seme-alabekin partekatzeko aukera izan dezazuen eta haurrek hizkuntzarekin harreman esparru zabalagoak bereganatu ditzaten.

Kalea, plaza, parkea... haurra sozializatzeko ohiko guneak dira, harreman askeetarako lekuak. Bertan ohiturak, jolasak, kantak... partekatzen dituzte, eta hizkuntza ere garatzen dute. Hortaz, espazio hauetan ere euskarak presentzia izatea garrantzitsua da. Haurrak gustura sentitzen badira euskaraz jolas eginez hizkuntza jarduerak dibertigarriekin lotzen dute. "Jolasak eta solasak" bideo bilduman, jolasean aritzeko hainbat jolas bildu dira.

V. edizioa kaleratu da aurten, eta azkeneko bideoak Lekunberrin grabatu dira, bertako neska-mutiko eta familien laguntzaz. Egindako lan berriak lehengoari gehituz, orain, guztira 30 bideo daude bilduman. Baliabide praktikoa da, inondik inora, kalean, plazan, eskola atarian... lagunekin jostatzeko: goma-jolasera, sokasaltorako, zotz egiteko, esku-jolasera... Azken batean, egoera ezberdinetarako egokiak diren jolasak, formulak, hitz-jokoak eta kantak biltzen dira bilduma honetan.

Neska-mutikoak bakarrik edo gurasoek ere parte hartuta, nahi bezala aritzeko modukoak dira. Bideoetako azalpenak oso lagungarriak dira nola jostatzen den erakusteko, eta iraupen laburrekoak direnez, erraz eta arin ikus daitezke.

Bideo guztiak ERAren Youtube kanalean ikus daitezke, transkribaketa eta, behar izanez gero, itzulpena barne.

Ikusi hemen youtubeko bideoak:





itz aspertuan

●● Agurtzane Altuna

Langarra

Kaleko hizkeran "cala bobos" esaten die erdaaz, halaxe da ta: tonto tontoan, kasi ohartu bare, bustitzen zatton ebi fin-fine da xirimirie o langarra. Adjetiboat jarri nahian hasi o konparatzen hasi ta enuke jakingo langarra o ebie zer den hobea. Ebie noblegoa eo litzke nolabatte esateko. Ebie gozo-gozo ai donean, "bee lurrean ai don ta botazala"; gustoz hartzen den zerbatte dela esango nuke. Kanpo lanetaako peraza pixkoat gehixau ematen bado re, oneakoa dela onartue dau ebie.

Langarra, berriz, ezbai bat; bai baino ez, ez baino bai. "Txir-txir-txir, lurre bustitzeko aña", latosokeri bat. Ezain-ezain, diximulo-diximuloan, lurre ez eze, bizkarra re bustita. Harrek bere lana itteo, goxo-goxo.

Ez baito dena txarra langarrak. Azpilaneako bidaide aproposa dela esango nuke. Ebi jasa earki atzematen da noiz heldu den Mallotan barrena; ostotsa re eskandaloso hutse da; etxafuero ta guzti aiazi behar izateo etorrera. Paragosa o aterkie hartzeko beta ematen due ebiek ta ostots ondoko jasak. Bestelako bihurrie da xirimirie. "Baa, horko pixke horrengatik, ezta zamarrik beharko"...ta ohartzeako bizkarra bustie.

Azken aldin biste askoan geatu da lurrek eztola aprobetxatzen gehieizko ure. Lurrek eztola txupatzen botatzen zaion guztie. Lurrazala hondatu ta zañetaa allaatu bare joaten dee sobranteak, aurrean eamanez harrapatzen duen guztie, noski.

Gaitasun hoi galdu ote giñun etsita neon, baño guk pertsonok re naturetik asko ikaste ote duun sinisten hasita nau. Pasa berri den azaroak 25an harire, ekaitzek harrapatu ginttun. Ikusi zen jasa heldu zela; jasa morea. Jantzi zen paparrean txapa morea; jaso zuen txapa morea, baño zañetaa allaatu bareko eun bateko beste ekaitz bat izan zen. Beharrezkoa? Bai, noski! "Bee lurrean ai don ta botazala".

Aterki moreakin babesten eakutsi beharrean, xirimiri morea da behar dena uzta emankorra izateko. Etenik bareko langarra bizi-bizi: ohartu bare bustitzen dona; euneroko lana; euneroko erreferenteak; euneroko jarrera aldaketak, salaketak, planto itteak, beste modu batea posible dela eakusten duen eredu diferenteak...denok bustiko gattun langar morea. Denok busti behau, bestela alperrik ai gea.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.

ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

“Plazaolak 30 urte beteko ditu abenduan”

**Plazaola Turismo Partzuergoak 30 urte beteko ditu abenduan. Mu-
garri honek kudeaketa aldaketa
dakur; izan ere, Gustavo Ortizek,
2015etik Partzuergoaren geren-
tea izan denak, agur esan du, eta
Maitena Ezkutari izango da ku-
deatzaile berria.**

Nola ospatuko da 30. urteurrena?

Ospakizun instituzional bat eginen da, Plazaolarekin lotura izan duten erakunde eta pertsona guztiak gonbidatuta: Nafarroako Gobernua, Turismo Saila, udalak, kudeatzaile, lehendakari ohiak, etab. Gainera, beste ekitaldi berezi bat antolatuko dugu Partzuergoko kideentzat.

Nolakoa izan da Plazaolaren ibilbi- dea?

Bi fase nagusi izan dituela esango nuke. Alde batetik, hasieran, udalak eta kide pribatuak gutxi ziren, eta Natur Bidea proiektuaren ardatz bakarra zen. Zailtasun ekonomiko handiak ere izan ziren. Hala ere, 2015ean udalen kuotak bikoiztu egin ziren eta Plazaolak gorakada eman zuen. 30 urteko ibilbidearen ondorioz, Partzuergoa erreferentziazko erakunde bihurtu da, eta gainera, Natur Bidea Iruñeraino iritsi da aurten, 55 km-ko luzera duen ibilbidea osatuta.

Beste aldetik, 2021ean fase berri bat hasi zen. Parte-hartze prozesu baten bidez, turismo estrategia berria zehaztu zen. Eta orain, Plazaolak naturarekin lotutako turismo jasangarria sustatzen jarraituko du, baina baita gure kultura, ohiturak eta hizkuntza ere.

Zein dira azken aurrerapen garrantzitsuenak?

Turismo Bulegoan, berrikuntzak eginen hasi da Turismo Saila. Obrak lau hilabete inguru iraungo du eta hainbat hobekuntza eginen dira efizientzia energetikoa hobetzeko. Gainera, aurrerago, Nafarroako Gobernuak 12 kilometro birmoldatuko ditu mugikortasun zailtasunak dituztenentzat. Eta horretaz gain, Europako diru-laguntza berriak sortu dira, PSTD eta



Plazaola Turismo Bulegoa

*“Ekitaldi berezi bat
antolatuko dugu
Partzuergoko kideentzat”*

ACD deiturikoak, Cederna Garalurrek kudeatzen dituenak. Laguntza ekonomiko hauei esker, hainbat azpiegitura sortu eta berrituko dira.

Nola uztartzen dituzue turismoa eta jasangarritasuna?

Natur Bidea oso lotua dago bizikletari eta oinezko txangoei, eta jarduera gutxi izango dira horiek baino jasangarriagoak. Gure paisaia eta kultura ondare aberatsa erdigunean jartzeak ere indartu egiten du jasangarritasunaren ikuspegia: jendea etortzera gonbidatzen dugu, non gauden eta zer garen ikusi eta aintzat hartzera.

Zure ustez, zein dira Plazaolaren lorpen nagusiak?

30. urtean, Plazaolak gure lurraldea egituratu du eta turismorako helmuga erakargarri bihurtu du. Beste herrialde batzuetara joan, eta Plazaola erreferentzia bat da.

Udalen inplikazioa handitzea eta sendotzea ere lorpen handia izan da, eta kide pribatuak erakartzea ere bai. Gaur egun, 100 baino gehiago dira. Horiek zaintzea dagokigu.

2021ean egin zen parte-hartze prozesuari ere balio handia ematen diot, epe luzeko turismo eredua eta estra-



Arkaitz Goikoetxea,
Plazaola Turismo Partzuergoko
lehendakaria eta Lekunberriko
alkatea



“2015ean udalen kuotak bikoiztu ziren, eta Plazaolak gorakada eman zuen”



Plazaolako trenaren iraganeko argazkia

tegia finkatzeko balio izan zuelako: jasangarria, Natur Bidetik haragoko eskaintza dibertsifikatuko duena, zikloturismoa eta natura erdigunean izango dituen, eskualde osora begira dagoena, eta komunikazioan indarra jarriko duena.

“Bide Berdeen Eguna” ere jarduera arrakastatsuen artean kokatzen da. Bizikleta eta oinezko txangoekin batera, jai giroko egitasmoak antolatzen dira, eta eskualdeko dinamizazioan eragin positiboa dute.

Amaitzeko, “Emakume Artzainen Eguna” ere nabarmentzekoa da, emakumeen lanari ikusgarritasuna ematen dion egun berezia delako.

Etorkizunera begira, zein dira erronka nagusiak?

Natur Bidea Iruñeraino iritsi delarik, Plazaolatik kanpo dauden beste udalerriekin elkarlanerako bideak esploratu behar ditugu. Nafarroako Gobernuarekin ere lan handia dugu egiteko Natur Bidearen inguruko mantentze-lanen inguruan. Eskaintza

“Natur Bidea Iruñeraino iritsi da aurten, 55 km-ko luzera duen ibilbidea osatuz”

turistikoari dagokionez, Natur Bidetik harago, gure kulturarekin lotzeko balioko duten benetako esperientziak sortu beharko ditugu, eta horretarako, promozioan eta komunikazioan armatu egin beharko dugu. Komunikazio plana egitea funtsezkoa izango da. Leitzako geltokia konpontzen eta atontzen dutenean, hiru geltoki izango ditugu, Latasa-Lekunberri-Leitza, eta horiek eskaintzaren barrunean sareteak aukera berriak sortuko lituzke. Gainera, azken urteotan, Plazaola indartzeko, digitalizazio arloa aktibatuko dugu. Sare sozialetan presentzia handitu dugu eta, komunikazio plan berriei esker, erakunde moderno eta ikusgarria sortu da.

Plazaolaren etorkizuna bide argiz dator, eta ezin dugu aurrera jarraitu orain arte bidea erraztu duenari eskerrak

“Eskerrik asko bihotzez, Gustavo, egindako lanagatik eta utzitako arrastoagatik”

eman gabe. Gustavo Ortiz de Barronek bederatzi urtez bertako gerente gisa egin duen lana funtsezkoa izan da, Partzuergoak erronka handiak izan dituen batez ere. Plazaolaren Egonkortasuna bermatzeko, langileak motibatuzko eta taldea eroso sentiarazteko zuen gaitasunaren falta nabaritutako dugu, eta baita bere lan miresgarria ere. Eskerrik asko bihotzez, Gustavo, egindako lanagatik eta utzitako arrastoagatik.

Haren ordez, Maitena Ezkutari izanen da gerente berria eta ongietorria egin nahi diogu. Plazaola inoiz baino indartsuago dago, eta denbora luze horrela jarraitzea eta hobekuntza berriak egitea espero dugu.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

BIDEGOXO JATETXEA

Jauntzariek
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Maritona GAZTAK Nafarroa
Iba. 643 677 257 • Iba. 643 511 057
Malloak.com • info@malloak.com

IDIAZABAL

Nafarroako Kutxa Fundazioa, erronka berriei eta kulturei erantzuteko erreferentziako erakundea

Nafarroako Kutxa Fundazioak bere proiektu ezagunen esperientzia eta gure komunitatearen eraldaketa soziala lortzeko proposamen berritzaileak uztartzen ditu. Fundazio pribatua da, irabazi-asmorik gabea, independentea eta Nafarroa osoan presentzia izateko asmoa duena. Nortasun horrek eta elkarlaneko lan-sare batek Nafarroako Kutxa Fundazioa posizio pribilegiatuan jartzen dute inpaktu eta kalitateko ekimenen eragile izateko.

Tresna dinamizatzailea da, eragiten duen lan-eremu guztietan, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzen laguntzeko. Bere proiektuen jardueragatik aintzatetsitako erakundea da, baina, gaur egun, ez da gauza garrantzitsu bakarra, jarduera hori nola garatzen den ere oso garrantzitsua da.

CIVICAN kultur zentroa, Isterria hezkuntza bereziko zentroa, Irati ibaia gaitasunak garatzeko zentroa, Hondarribiko udalekuak edo adinekoen zentroak bezalako proiektuak Nafarroako Kutxa Fundazioaren jarduera identifikatzen duten ekimenak dira. Era berean, Innova Programa edo UAVDI bezalako lankidetz-ekimenek, biak "La Caixa" Fundazioaren eskutik, erakundearen jarduera bereizten dute.

Hala ere, Nafarroako Kutxa Fundazioaren asmoa, gaur egun, komunitatearentzat erreferentzia izaten jarraitzeko gai izatea da, eta, bereziki, hirugarren sektorearentzat, bizi garen unean uneko beharretara eta errealitatera egokitutako lan-eredua duen erakundea den aldetik.

Eguno Patronatuak 2023an onartutako Plan Estrategikoak erronka sozial berriei irtenbideak bilatzeko eta pertsonen gure lehentasunen bihotzean egon behar dutela kontuan hartzeko helburua du. Premisa horietatik abiatuta, metodo hau entzute aktiboan, elkarlanean, berrikuntzan, independentzian, kaudimen teknikoan eta bikaintasunaren bilaketan oinarritzen da lan egiteko modu hori.

Dokumentu hori, Nafarroako Kutxa Fundazioaren III. Plan Estrategikoa, lan-metodologia horren erakusgarri ona da. Gizartearen zati handi bati entzutea, hainbat arlotako 200 eragile ere, plan hau eratzeko lehen urratsa izan zen.



Iritzi horiekin guztiekin, baheketa eta ekarpenen azterketa fase bat egin zen. Ondoren, komunitatearentzat garrantzitsuentzat jotzen ziren ideiak hautatu ziren. Patronatuak egindako lan horren ondoren, Nafarroako Kutxa Fundazioaren talde teknikoak planaren 46 neurri zehatzak garatu behar ditu, 11 lan-ildotan antolatuta.

Berrikuntza eta sarean lan egiteko beharra dira egungo Nafarroako Kutxa Fundazioaren funtsezko beste bi gai. Berrikuntza gutxi mugatutako kontzeptu baten aurrean, Nafarroako Kutxa Fundazioak lau elementu oso argiko berrikuntza kontzeptua proposatzen du. Aldaketa soziala sortzeko eta xede duen kolektiboan eragin ebaluagarria sortzeko beharra. Gainera, inprobisaziotik ihes egitea, ezagutzan eta metodoan oinarrituta, eta hainbat eragileren arteko aliantzak sortzea.

Plan Estrategiko horren funtsezko helburuetako bat da, zalantzarik gabe, Fundazioaren presentzia bultzatzea Nafarroako eremu guztietan, landa-eremuetako despulazioaren gizarte-erronkari aurre egingo dioten proiektuak garatzen saiatuz.

Nafarroako Kutxa Fundazioa eta Araitzen eta Larraunen duen eragina

Nafarroako Kutxa Fundazioak eremu horretan duen inpaktua Innova Programak babesten duen proiektuetako bati lotuta dago (Fundazioak berak eta "La Caixa" Fundazioak bultzatua). Programa honek hainbat lan-eremutako proiektu berritzaileak babesten ditu, hala nola gizarte-, kultura- edo landa-eremukoak.

Innova Programak babestutako ekimenetako bat Citizen On da, eta hiru udalerritan komunitatea indartzeko prozesu paraleloak sortzea proposatzen du: Lekunberrin, Peralta-Azkoienean eta Alesbesen. Horien bidez, tokiko gizarte-ehunaren funtsezko pertsona eta erakundeei gaitasunak eta tresnak ematen zaizkie, horiek konektatzeko eta elkarrekin lan egitea proposatzeko.

ABENDUA

2 - 19:00, Lekunberriko San Juan Bataiatzailearen Elizan, Euskararen Eguna. "Jon, Jaione eta seme alabak" kontzertua.

3 - 12:30 Gabari guneko Irekian, mikroipuinen lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Aralar Musika Eskolak eta Ibarberri Ikastetxeko ikasleek lagunduta.

8 - Goizez, Lekunberriko Plazaola Kiroldegian, Memorial IV Jesus Aranaz (eskubaloia). Lekunberri Kirol Elkarteak antolatuta.

13 - Arratsaldean, Lekunberri, Gabonetako argien piztea.

13-15 - Lekunberriko Udaletxean, Puzzle topaketa, 13.500 piezako puzzlea sortzen lagundu ezazu!

14 - "ETXERA" Euskal preso, iheslari eta deportatuen aldeko bazkaria, Uitziko Merkualede Elkartearen. Ondoren, Herri Kantak. Apuntatzeko, deitu: 600 38 60 28. Animatu zaitzete! Eta eman izena abenduaren 9a baino lehen!

2024 - 2025 ikastaroak EUSKARAZ

Leitzako Mimukai zentroan ikastaro berriak eskainiko dira, 2024ko azaroan hasi eta 2025eko ekainera arte. Enpresa kudeaketarekin eta marketingarekin lotutako ikastaro antolatu dituzte Mimukai zentroak eta Rodoiak, Nafar Lansarearen laguntzarekin. Ikastaroak dohainik izanen dira eta, aurtun, ikastaro guztiak euskaraz eskainiko dituzte.

Interesa duen edonork parte hartu dezake, baina bereziki interesgarria izan daiteke enpresa txiki edo autonomoentzat, beraien egunerokoan baliagarriak izan daitezkeen argibideak jasoko dituztelako. Hauek dira egiten diren hurrengo ikastaroak:

15 - Ttuttureren mendi irteera, Euskal Herriko Urmuga. Etapa 4: Baratzar mendatea - Saibigain - Urkiola mendatea - Orixol - Krutzeta mendatea.

22 - Aralarren, "Mendigoizale Eguna". Mendi-taldearen topaketa. Nafarroako Mendi Kirolen eta Eskaladaren Federazioak antolatuta.

24 - Goizez, "Larraunen gabon kantari". Gabon-kantak abestuko dira Larraungo herrietan, gero denak Lekunberri elkartzuz. 18:00 Lekunberri, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Harrera Udaletxean. Ondoren, kalejira Alde Zaharretik Harraskaren Plazaraino.

28 - Goizez, Lekunberriko Jaian Jai Frontoia, Irurtzungo X Frontenis Txapelketa. 18:30 Lekunberriko Plazaola Kiroldegian, Korrontzi taldearen kontzertua. Kaskamotz elkartearen alde. Sarrerak: 12€ helduak, 8€ haurrak (3-16 urte), Lekunberri kiroldegian eta Mitxasenean, Irurtzungo Pikuxarren eta Leitzako Maimurren.

31 - Arratsaldean, Lekunberriko San Silvestre Lasterketa (Lekunberri Kirol Elkarteak antolatuta).

*Lekunberri eta Larraungo gabonetako egitaraua laster iragarriko da; agendan moldaketak suertatu daitezke.

*Araitz-Beteluko Kulturaldia kontrazalean.

- ▶ Ekintzaileentzako marketing plana: merkatua-
rentzat eta salmenten aurreikuspena (2025/01/14 -
2025/03/06), asteartea eta osteguna, 18:00-20:00
(32 ordu)
- ▶ Enpresaren zerga kudeaketa (2025/03/11 -
2025/05/22), asteartea eta osteguna, 18:00-20:00
(42 ordu)
- ▶ Marketing zuzena eta bezeroen fidelizazioa
(2025/05/27 - 2025/06/26), asteartea eta osteguna,
18:00-20:00 (27 ordu)

Ez galdu aukera eta izena eman comercialnavarra@
rodoia.com helbidean, edo deitu 690 981 219 zenbakira.

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldea 19,
Lekunberri
MARTIÑO TXIKI
PERIPILO IZERRA
www.martitolobiki.com
679 938 016

serigrafia
diseinua
estanzazioa
kaixo@gko.eus 608 228 234

PUBLIZITATEA MAILOPEN
Labrit Multimedia 948 210 103
mailope@labrit.net



Abenduak 5. Intza. 19:00 **PALESTINAN ZER ?**



Thawer Birawwi palestinar euskaldun berriaren bizipenak, Palestinarekin Elkartzasuna plataformako kide batekin lagunduta. Palestina: historia, bizipen pertsonaletatik, mendebaldeko arduetara.

Abenduak 4. Beteluko ekarrea. 19:00 **ESKOLAKO JANGELA**

Beteluko Araxes ikastetxean eta inguruko herrietako ikastetxeetan jantokiaren egoera zortan don eta etorkizunari begira aurreikuspena zein den aztertuko da mahainguru honetan, komunitate horietako hainbat ordezkariarekin.

Abenduak 6. Azkarateko eliza. 19:00 **"ZINZINDURRUNKARRATZ"**



Oskar Alegriaren hirugarren ez-fikziozko proiektuak izenburutik bertatik sortzen du ezinegona. Baina lasai. Memoriaren zirrikietara egindako bidaiak poetiko honekin sintonizatu bezain laster, ahaztu egingo zaizkigu aurreritzi eta beldur guztiak. Emanaldiaren ostean, solasaldia Oskar Alegria eta Bixente Otamendirekin.



Abenduak 7. Ataluz. 21:00

BERTSO AFARIA ETA GAU-PASA

Afariako bartelak salgai jarriko dira ohiko lekuetan.

Abenduak 8. Intza. 17:00 **"BONBA BAT NAIZ"**

Goiza Etxazarretak gehien maite duena egiten zorianasuna aurkitzen du. Bere gozotegian chantillyzko bonbak egitea izugarri gustatzen zaio. Bonba gozoen iraultza eta zorion-estanda bat proposatzen digu Beatriz Larrañagak klown komedia honetan.



Azaroak 28. Uztegi. 19:00

"SUSTRAIETATIK ERALDATUZ"

Liburuak aztertuta, haur eta gazte literaturak genero berdintasunaren erakuntzan nola eragiten duen aztertzen duen dokumentala. Ostean, solasaldia, Parea elkartearen eskatutako. Txostuak eta Gizarte Zerbitzuak bideratutako saioa



Azaroak 30. Azkarate

ARAITZ-BETELUKO EGUNA

Goiz soina bistulariekin 11:30 Dantzarri bikien saioa 12:00 Goiz musikatu: Beteluko abesbatza, fanfarrea, trikileriak, Aralar Musika eskolako abesbatza... Goiz osan zehar taloak izanen dira. 14:00 Bazkaria, eta ondoren, karaokea. Txartelak salgai ohiko lekuetan. Helduak: 20 € /Haurrak (12): 5€

Abenduak 1. Betelu. 11:00

MENDIALDEKO AZOKA



12:00etatik aurrera dantzarri bikien emanaldia eta herri kirol erakustaldia: alzkolarik eta trontza. Goiza fanfarreak girtuko du

Azaroak 29. Lezaola. 19:00

"TOLOSA TOKYO BIZIKLETAZ"

2014eko martxoan Lander Egilek bere ametsakotako bidaiari ekin zion. Bizikleta hartuta Tolosatik abiatu zen Tokiora bidean. Bi urte ta erdi igaro zituen, bitarte horretan 29 herrialde zeharkatuak, ikus-entzunezko emanaldi honetan bertan bizitzeko pasarteak kontatuko dizkigu, eta solasaldia izango da ondoren.



ARAITZ-BETELUKO KULTURALDIA

2024



AZAROAK 28 - ABENDUAK 8

Abenduak 1. Arribeko eliza. 19:00

GORKA URBIZU

"KONTZERTU BAT"

Bailarako jendearentzako gonbidapenak aurkeztu egunetan banatuko dira. Zehaztuko dira eguna eta lekua.



Abenduak 2. Arribeko udaletxea. 19:00

DESIOAK, EROTIKA ETA SEXUALITATEA

Desioak, erotikak, harremanak, sexuak eta sexualitateaz mintzatzeko aukera egongo da ordu eta erdiko tailer honetan, Ixaso Bakedano Moreno sexologoarekin.

Abenduak 3. Errazkin. 11:30

"BASOKO MUNTSTROAK"



Muntstro beriekin bebeto ditugu gure herrietako bazterrak. Sormena askatzeko tailerlean, Garikoltz Muruaren laguntzaz, gure irudimonekin mihiara pasako dira. Parte hartzaile bakoitzak margolan bat eramango du etxera, bakoitzak egin duen marrazkideekin. Eman izena Euskara zerbitzuari: larbeareuskaraz@parmanek.eus

Abenduak 3. Gaintzako Sortetxea. 19:00

DANTZA ETA MUGIMENDU LIBREA

Gaintzatik mundura, mundutik Gaintzara. Mugitzen garen modua bada gure barne munduaren adierazle. Barne mundua aberastu eta orekatzeak, osasuna dakar, gero lanpian ere nabaritu daitekeena. Harremanetako modu asko frogatu ondoren (bertsolartza, batukada, dj...) dantza librea izan da Oskar Estangak ongizaterako aukeratu duen bidea. Bidai horren eta lendu diren praktiken azalpenak eman, eta nahi duonarentzat pixka bat mugitzeko aukera izango dugu.



Abenduak 4. Beteluko eskola. 10:00-14:00

GAZTETXOENTZAKO GRAFFITI TAILERRA



Euskara Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuak eskualdeko gaztetxoekin lantzen duten aisialdi programan aurrerikusatuko eta Iker Uribeak gidatutako jardura.